

Gure bihotzeko hazia

Euskararen historia luzea eta gorabeheratsua izan da. Bere etsaiek putzu sakon eta ilun batean sartu nahi izan zuten baina euskarak eta euskaldunek euren ahalegin guztiak egin zituzten bere hazia desagerrarazi ez zezaten. Euskara mespretxatzen zutenek euskararen eta euskaldunen eskubideak zapaldu eta haien nortasuna gutxietsi zuten. Ezkutuan bizi den hizkuntza bat bihurtzea lortu zuten baina ezerk ez gaitu euskaldunok gelditzen eta etsai guztien ahaleginen aurrean, azkenean, euskarak, euskararen haziak, loratzea lortu du.

Haziak bizirauteko eginiko ahalegin horiek bere fruituak eman dituzte. Gure hizkuntza maitea herriaren bihotzean dugu eta harekin hazi, hezi eta biziko gara luzaroan. Eta egungo euskaldunek euskara itsaso urdin eta zabal bat bihurtu dute eta itsaso hori zabaltzen jarraituko dugu euskaldunon batasunarekin eta hitzekin.

Guk euskaraz, eta zuk zergatik ez? Euskara da euskaldun egiten gaituena. Eta euskaldunek euskara putzu sakon eta ilun horretatik ateratzea lortu zuten bezala, guk ere jarrai dezagun itsas zabal eta urdinean arraunean. Harro hadi Kantauri itsasoa, harro hadi euskara. Euskaraz mintza gaitezen, euskara sustatu dezagun, euskara irakatsi eta ikasi dezagun; euskaraz bizi gaitezen. Euskara gure lemazaina zen, da eta betiko izango da; euskara ondoraezina bihurtuz.

Gu denok euskara gara. Eta zu?

